Arartekoaren 2015eko uztailaren 14ko ebazpena. Berrizko toponimia mapan ageri den baserri baten izenari buruz

Euskera. 2015, 60, 1. Bilbo
ISSN 0210-1564

Euskera 2015_1.indd 269 17/10/16 13:08

Sarrera

Berrizko herritar bat kexatu egin zen Arartekoaren aurrean, Euskaltzaindiaren jardunbide bat zela-eta. Kexaren arabera, bera bizi zen baserriaren jatorrizko izena aldatu du Euskaltzaindiak eta bere ustez jabeak erabaki behar du nola idazten den bere etxearen izena.

Arartekoak kexa aztertu eta erantzuna eman du. Aipatu erantzuna ebazpen baten mamitu du eta Euskaltzaindiari horren berri helarazi dio. Hurrengo orrialdeetan ebazpen osoa argitzatzen dugu.

Euskera. 2015, 60, 1. 271. Bilbo
ISSN 0210-1564

Euskera 2015_1.indd 271 17/10/16 13:08

ararteko
Herriaren Defendatzailea
Defensoría del Pueblo

Erreferentzia: 1030/2015/QC

EUSKALTZAINDIA
REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA
ACADÉMIE DE LA LANGUE BASQUE
2015 UZT. 23
Bilbo-Erregistro Orokorra
SARRERA Zenb. 82

EUSKALTZAINDIA
ANDRES URRUTIA JAUNA
EUSKALTZAINBURUA
Barria plaza 15
48005 BILBAO

Euskaltzainburu jauna:

Idazki honekin batera bidaltzen dizut 1030/2015/QCzenbakiko kexa-espedientean eman dugun ebazpena.

Begirunez.

Señor presidente:

Por medio del presente escrito, le remito la resolución que hemos adoptado en el expediente de queja nº 1030/2015/QC

Atentamente.

ararteko

Julia Hernández Valles
Jarduneko ararteko

Vitoria-Gasteiz, 2015eko uztailaren 14a

Euskera. 2015, 60, 1. 272-276. Bilbo
ISSN 0210-1564

ararteko
Herriaren Defendatzailea
Defensoría del Pueblo

Arartekoaren 2015NI-1030-15 Ebazpena, 2015eko uztailaren 14koa. Horren bidez, amaitutzat jo da Berrizko toponimia mapan ageri den baserri baten izenaren grafiaren inguruan jarritako kexaren gaineko esku-hartzea.

Aurrekariak

1. Berrizko herritar bat kexatu egin zen Arartekoaren aurrean, Euskaltzaindiaren jardunbide bat zela-eta. Jardunbide horrekin zuen erabateko desadostasuna agertu zuen kexan, izan ere, eta kexaren arabera, bera bizi zen baserriaren jatorrizko izena aldatu zuten, /tx/ grafiarekin ordezkatu baitzuten aipatu izenaren fonema, gazteleraz /ch/ grafiarekin zegoena. Adierazi zuenez, eskrituretan ageri zen izendapena asaldatzen zuen horrek, eta jabeak erabaki behar du nola idazten den bere etxearen izena, berea izaki izenaren esklusibitatea.

2. Kexaren xede zen Euskaltzaindiaren esku-hartzea kokatuta zegoen administrazio jardunbideari buruzko beste erreferentziarik aipatu ez zuenez kexagileak, tartean zeuden instantzien beharrezko informazioa bildu genuen. Horrela, Berrizko Udalaren ekimena zela jakin genuen, eta 2012ko maiatzaren 24ko bandoaren bidez iragarri zuela alkateak. Horri jarraiki, toponimia maparen lanei eta auzoen zerrendatze berriari buruzko informazio bilera batera deitu zituzten herritarrak. 2012ko maiatzaren 18ko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean onartu eta argitaratu zuten bilera. Lan horien xedea udalerriko etxebizitzen orientazioa eta seinaleztapen egokia ematea zen, aldi berean, tokiko toponimia babesteko xedez, gizadiaren ondare den heinean. Bestetik, toponimia hori beharrezko zuzenketa ortografikoen bidez egokitzeko asmoa zuten.
   Interesdunek horri buruz aurkeztutako arrazoibideen testuinguruan, Euskaltzaindira jo zuen udalak, espedientearen sustatzailearen baserriaren izenaren grafia zuzenaren berri eman ziezaion. Halaxe egin zuen Euskaltzaindiak, idazki baten bidez. Bertan, azaroaren 24ko 10/1982 Legearen aurreikuspenetatik abiatuta, baserriaren izena zuzen idazteko modua /tx/ grafiarekin zela irizteko arrazoiak azaldu zituen.

3. Azaldutako aurrekariak kontuan hartuta, bere esku-hartzea ebazpen honekin amaiaraztea erabaki du Arartekoak, eta honako gogoetetan oinarritu du:

Gogoetak

1. Soziolinguistika alorreko gogoetetan oinarritzen da Euskaltzaindia, dokumentu jakin batzuetan ageri den izendapenak egun indarrean dagoen ortografia araua jarraitzen ez duela azaltzeko orduan, eta erakunde honek ezin ditzake ontzat hartu besterik egin: alde batetik, administrazioek ez

Euskera 2015_1.indd 273 17/10/16 13:08

ararteko
Herriaren Defendatzailea
Defensoría del Pueblo

dutelako euskara XX. mendearen amaierara arte erabili; bestetik, euskararen alfabetoa ez zelako 1900 ingurura arte modernizatu. Une horretatik aurrera, /ch/ grafia /tx/ grafiarekin ordezkatu zen, gaztelaniaz Ç letra Z letrarekin ordezkatzeko fenomeno bera izanik.

2. Horrek ez du oztopatzen gure administrazioek Euskaltzaindiak une bakoitzean adierazitako ortografia araua jarraitzea, halaxe ezarri baitu indarrean dagoen ordenamenduak. Zentzu horretan, Euskadiko Autonomia Estatutuak esleitu dizkion funtzioei heltzeaz gain, bigarren aurrekarian aipatu den Euskaltzaindiaren idazkiak azaroaren 24ko 10/1982 Legea ekarri du ahotara, euskararen erabilera normalizatzeko oinarrizko legea dena. Bere desadostasuna argudiatzeko xedez, Euskal Autonomia Erkidegoan euskararen erabilera hautazkoa eta ez derrigorrezkoa izatea aipatu du espediente honen sustatzaileak.

Kexak bereizi beharreko bi plano nahasi ditu. Hala, partikularra askea da egokitzat jotzen duen grafia erabiltzeko bere etxea izendatzeko edo adierazteko orduan; tokiko administrazioek, ordea, ez dute askatasun hori toponimia mapak argitaratzeko edo udal-mugarte jakin batenak diren baserrien helbideak orientazio xedearekin seinaleztatzeko unean. Euskararen erabilera herritarrentzat derrigorrezkoa ez izateak ez du galarazten erakundeak 10/1982 Legeari lotuta egotea, eta, zehazki, horren 10. artikuluan jasotako bi aurreikuspeni lotuta egotea: batetik, toki izenak jatorrizko hizkuntzan idatzi behar direla, eta, bestetik, zalantza egotekotan, Euskaltzaindia izango dela erakunde aholku-emailea. Gauza bera esan daiteke gure Autonomia Estatutuaren aurreikuspenen aurrean. Horren 6. artikuluak funtzio aholku-emaile ofiziala esleitu dio Euskaltzaindiari, euskarari dagokionean.

Ondorioa

Azaldu ditugun egitateei eta gogoeta juridikoei erreparatuta, ezin daiteke ezegokitzat jo kexaren xede den jarduera. Kexagileari ebazpen hau igorrita, egokia da erakunde honek espediente honen gainean burututako esku-hartzea amaitzea.

Euskera 2015_1.indd 274 17/10/16 13:08

ararteko
Herriaren Defendatzailea
Defensoría del Pueblo

Resolución 2015NI-1030-15 del Ararteko, de 14 de julio de 2015, por la que se concluye su actuación en relación con una queja interpuesta en torno a la grafía del nombre de un caserío en el mapa toponímico de Berriz.

Antecedentes

1. Una ciudadana de Berriz protestó ante el Ararteko por una actuación de Euskaltzaindia, con la que expresaba su absoluto desacuerdo por haber cambiado, según la queja, el nombre original del caserío en que residía al pasar a representar mediante la grafía /tx/ el fonema de dicho nombre al que corresponde en castellano la grafía /ch/. Señalaba que ello suponía una alteración de la denominación que aparecía reflejada en las escrituras, y que es el propietario quien debe decidir cómo se escribe el nombre de su casa, al tratarse de un nombre propio cuya exclusividad le pertenece.

2. Dado que la reclamante no citaba otras referencias sobre la actuación administrativa en la que se insertaba la intervención de Euskaltzaindia que era objeto de queja, recabamos la información pertinente de las instancias concernidas. De esta forma tuvimos conocimiento de que se trataba de una iniciativa del Ayuntamiento de Berriz, cuyo alcalde la había anunciado por medio de un bando el 24 de mayo de 2012. En su virtud, se había convocado al vecindario a una reunión informativa sobre los trabajos del mapa toponímico y renumeración de los barrios, aprobado y publicado en el Boletín Oficial de Bizkaia del 18 de mayo de 2012. El objeto de tales trabajos había sido facilitar la orientación y adecuada señalización de las viviendas del municipio, actuando al mismo tiempo para proteger la toponimia local, como patrimonio de la humanidad, adecuándola en su caso mediante las correcciones ortográficas oportunas.

   En el contexto de las alegaciones presentadas al respecto por las personas interesadas, el Ayuntamiento se dirigió a Euskaltzaindia para que informara en relación con la grafía correcta del nombre que designa al caserío de la promotora del expediente. Así lo hizo la Academia Vasca de la Lengua por medio de un escrito en que, partiendo de las previsiones de la Ley 10/1982 de 24 de noviembre, explicaba los motivos que le llevaban a dictaminar que la forma correcta de escribir el nombre del caserío era con /tx/.

3. Teniendo en cuenta los antecedentes expuestos, el Ararteko ha decidido concluir su intervención formulando la presente resolución, que se fundamenta en las siguientes

Euskera 2015_1.indd 275 17/10/16 13:08

ararteko
Herriaren Defendatzailea
Defensoría del Pueblo

Consideraciones

1. La Academia de la Lengua Vasca se basa en consideraciones de orden sociolingüístico, que esta institución no puede sino suscribir, para explicar por qué la nomenclatura que aparece en determinados documentos no sigue la norma ortográfica actualmente en vigor: por una parte, porque las administraciones no han usado el euskera hasta finales del siglo XX; por otra, porque el alfabeto eusquérico no se modernizó hacia 1900, momento a partir del cual la sustitución de la /ch/ por la /tx/ representa el mismo fenómeno que llevó a sustituir la Ç por la Z en la norma escrita del idioma castellano.

2. Nada de ello obsta para que nuestras administraciones deban seguir, porque así lo dispone el ordenamiento vigente, la norma ortográfica que en cada momento señale la Academia de la Lengua Vasca. En este sentido, además de apelar a las funciones que le otorga el Estatuto de Autonomía de Euskadi, el escrito de Euskaltzaindia al que se ha hecho referencia en el Antecedente Segundo traía a colación la Ley 10/1982, de 24 de noviembre, básica de normalización del uso del euskera. A efectos de argumentar su desacuerdo, la promotora del presente expediente hacía referencia al carácter opcional, y no obligatorio, que en nuestra Comunidad Autónoma tiene el uso del euskera.

   La queja confunde con ello dos planos que es preciso distinguir. Así como un particular es libre de utilizar la grafía que entienda oportuna para denominar o señalizar su casa, las administraciones locales no lo son al editar los mapas toponímicos o al señalizar con fines orientativos la dirección de los caseríos que pertenecen a determinado término municipal. Y es que el hecho de que el uso del euskera no sea obligatorio para la ciudadanía no es óbice para que las instituciones estén vinculadas por la citada Ley 10/1982, y en concreto por dos de las previsiones recogidas en su art. 10: por un lado, que los nombres de lugar deben escribirse en la lengua de origen; por otro lado, que en caso de duda será Euskaltzaindia la institución consultiva. Lo mismo cabe decir con respecto a las previsiones de nuestro Estatuto de Autonomía, cuyo artículo 6 otorga a Euskaltzaindia la función consultiva oficial en lo referente al euskera.

Conclusión

Atendiendo a los hechos y las consideraciones jurídicas que hemos expuesto, no cabe entender incorrecta la actuación objeto de queja. Con la remisión al reclamante de esta resolución, procede poner fin a la intervención de esta institución en el presente expediente.

Euskera 2015_1.indd 276 17/10/16 13:08